

ELKARRIZKETA
ITZIAR VERGARA
(Irun 1968)

ZIENTIFIKOA ETA MEDIKUA

MARTXOAK 8

**OIASO MUSEOA
EMAKUMEAREN
NAZIOARTEKO
EGUNAREKIN**



BERE IBILBIDEA

Itziar Vergara doktorea – IIS Biogipuzkoako zuzendari zientifikoa

Itziar Vergara Mitxeltoarena irundarra izateaz gain, 2022. urtetik IIS Biogipuzkoako zuzendari zientifikoa ere bada.

Itziar Vergara familiako medikua da, Osasun Publikoko masterra egin zuen Kaliforniako Unibertsitatean (Berkeley) eta Medikuntzan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean. 2011. urteaz geroztik, Biogipuzkoa Osasun Ikerketako Institutuko lehen mailako arretaren arduraduna zen. Bere ikerketa-ildoak, batez ere, zahartzaroaren lehen mailako arretan oinarritzen da.

Ikerketa-talde eta ikerketa-sareetan parte hartzeaz gain, artikuluak eta lanak argitaratu ditu bere lan-ildoan. Zahartzeari, osasun komunitarioari, osasunari eta generoari buruzko ikastaroetan eta kongresuetan ere irakasle izan da.

Oiasso Museotik nabarmendu nahi dugu Historia eta Zientzia zikloa abian jartzeko egin duen lana eta ahalegina. Aurten hirugarren edizioa izango da, eta helburua zientziaren zabalkundea eta historian izan duen bilakaera da. Ziklo honek Oiasso Museoan ikertzaileak, arkeologoak eta historialariak biltzea lortu du.

Beti eskertuko diogu Itziar Vergarari bere ezagutzak partekatzeko erakutsi duen gogo, grina eta eskuzabaltasuna.



IIS BIOGIPUZKOAKO
ZUZENDARI
ZIENTIFIKOA

BERE IKERKETA-ILDOA,
BATEZ ERE,
ZAHARTZEARI LEHEN
MAILAKO ARRETAN
EKITEAN
OINARRITZEN DA.

ELKARRIZKETA ITZIAR VERGARA

■ Itziar, Irungoa zara, eta beti adierazi duzu irundarra izateagatik sentitzen duzun harrotasuna. Zure aita, gainera, bere sormen handia tornulari lanbidetik garatu zuen gizona izan zen. Zer oroitzapen dituzu zure haurtzaroko eta gaztaroko Irun herriari buruz?

Irunen jaio nintzen, eta nire amaren eta aitaren familien jatorria Malerreka eskualdean dago, gure Bidasoaren ertzean. Gure aiton-amonek Sunbilla, Aranaz eta Doneztebe utzi eta Irunera etorri ziren beren etorkizuna lantzerantz. Han, nire gurasoek elkar ezagutu eta familia osatu zuten, baina beti mantendu genuen harreman estua Nafarroan geratu zen familiarekin. Gure ama, Mari Carmen, jostuna zen, eta Juncal Arrietaren tailerrean lan egin zuen, harik eta berea ireki zuen arte. Eta gure aita, Jose Miguel, tornularia zen eta erretiroa hartu arte berak sortutako tailerrean lan egin zuen. Anakako etxe merkeetako batean bizi ginen gurasoak, anaia Joseba eta aiton-amonak, Evaristo eta Alejandra. Gure Nahia deitu zioten etxeari, eta gure haurtzaro eta gaztaroko eszenatokia izan zen. Etxe hartan daude oraindik aitak burdinaz egindako ateak, Javier Sagarzazuren marrazkietan oinarritutakoak. Euskal kulturaren gaietan oinarritutako burdin hesiak gordetzen ditugu eta laster Javierren zirriborroekin batera jendaurrean erakusteko aukera izatea espero dut.

Oroitzapen ederrak ditut nire auzoaz, kalean jolasteaz, gure auzokide maiteez, Manterola, Dora eta Pedro ahizpez, Zapirain ahizpez, lehen mailako ikasketak egin nituen Pilarreko ikastetxera joatearen txangaiatz, ekainean loratutako zuhaixken usainaz, udaren etorrera iragartzen zutenak, eta San Martzialez. Gazteago nintzela, Martindozenea Sallean ikasi nuen, eta han nire koadrila egin nuen, Irun eta Hondarribi arratsaldean eta parrandan gozatzeko aukera bizi izan nuen. Ondoren, beste hiri eta herrialde batzuetan ikasteko eta lan egiteko aukera izan nuen, eta horrek zure jatorria beste begirada batekin ikusten laguntzen du. Gure hiria asko aldatu da ordutik. Hirigintza eta zerbitzuak izugarri hobetu dira, eta uste dut merkataritzak ez duela une egokia bizi, baina espero dut ongi etorria ematen dakien eta izpiritu irekiko hiria izaten jarraituko duela.

■ Eta eremu profesionalean, nola ikusten duzu emakumeak zientzian egiten ari diren ibilbidea?

Zientziaren arloan emakumeen presentzia, ikusgarritasuna eta aintzat hartzea nabarmen ari da handitzen eta hobetzen azken urteotan. Iraganeko istorio askotan, emakume ikertzaileen lana lankideak ziren gizonen lanak itzaltzen zuen. Zorionez, hori aldatzen ari da, gizartea adi eta kontzientziatuta dagoelako. Karrera batzuetan emakume gutxi dago, baina beste batzuetan kontrakoa gertatzen da. Zergatik gertatzen den banaketa hori galdetu behar diogu geure buruari, eta saihesten saiatu, baldin eta alborapen motaren batek baldintzatzen badu. Dena dela, lanean jarraitu behar dugu, emakumeak beren ibilbide zientifikoan ikusgai eta modu proportzionalean mantentzeko. Gaur egun, oraindik ere, karrera eta ikerketaren hasierako etapetan emakumeak gehiengoa badira ere, aurrera egin ahala emakumeen presentzia gero eta txikiagoa da lidergo eta erantzukizun posizioetan.

■ Nola aldatu da zure inguruan emakumeen presentzia eta errekonozimendua?

Osasun-ikerketari dagokionez, emakumeok ikusgarritasun handia izan dugu beti, arlo profesionalean gehiengoa baikara duela hamarkada batzuetatik hona. Baina aurreko galderan aipatutako artaziaren eraginpean gaude oraindik. Kezkagarria iruditzen zait gaur egun, osasunaren alorrean, langile gehienak emakumeak direnez, gizarteak zerbitzu horiekiko gogobetetze-maila txikia duela adieraztea. Nire ustez, gogobetetze beherakada hori eragiten duten kausak aztertzean, adi egon behar dugu horren arrazoia zein den jakiteko, eta batez ere, generoari lotuta egon daitekeen lanbidearen izen ona galtzea saihesteko neurriak hartzeko.

■ Emakume izateagatik egoera deserosoren bati aurre egin behar izan diozu?

Nire ustez, orain dagokidana bezalako erantzukizun-karguak hartzen ditugun emakumeok liderraren iruditeria kolektibotik maiz urruntzen diren lidergo eta kudeaketa-estiloak defendatu eta ikusarazi behar ditugu, eta horrek sortzen dituen kritiken eta epaiketen aurrean erresistente izateaz gain, erresilienteak izan behar dugu.

Lidergo-eredu horiek erabiltzen dituzten gizonak ere kritika horien mende daude, baina alde bat dago; izan ere, beren kasuan, ez datoz generoarekin lerratutako epaiketekin batera. Bestalde, arlo profesional guztietan eta gurean ere, premia handia dago hazkuntzaren eta zaintzaren arloko erantzukizuna partekatzeko. Ni oso zorionekoa izan naiz horretan, baina ideia hori orokortu beharra dago, gizartearen esparru guztietan txertatu dadin.

■ Garrantzi eta gaurkotasun handiko gai bat landu duzu, zahartzea eta adinekoen zaintza, zalantzarik gabe genero-alborapena duena. Azken urte hauetan aurrerapauso handiak eman dira adinekoen zaintzari dagokionez, nabarmenenak kontatu ahal dizkiguzu.

Adineko emakumeek joera batzuk izan ditzakete, eta haiek batzen direnean indartu edo areagotu egiten dira, esate baterako, genero kontuak, adinarekin zerikusia dutenak adnkeria deitzen zaiona, edota maila sozioekonomikoarekin lotutakoak,-adineko emakumeek oraindik ere gizonek baino hezkuntza-maila txikiagoak dituztelako, nahiz eta hori laster aldatuko den-, eta pobrezia-egoerek ere gehiago eragingo die, baina espero dut hori ere aldatzea, pentsio-sistema bidezkoagoa izanik. Adinekoen arretari dagokionez, aurkikuntza nagusia da ahalegin guztia egin behar dugula adinekoak ahalik eta gehien funtziona dezaten, aktibo izan daitezen. Horrek begi-bistakoa dirudi, baina kontuan hartzen badugu urteak bete ahala gaixotasun batzuk maizago agertzen direla eta aldi berean denak batera tratatzen direla, sahiestu behar dira esaterako medikazio gehiegikeriak eta horri lotutako arazoak. Erronka handia da, eta elkarrekin lan egin behar dugu bai osasun-zerbitzuek, bai zerbitzu komunitarioek eta baita herritarrek.

■ Konta iezaguzu nola sortu zen Historia eta Zientzia zikloa antolatzeko zure ideia.

Biogipuzkoa Institutuaren helburua ezagutza zientifikoa gizarteari hurbiltzea da. Erantzukizun hori partekatzen dugu Institutua, Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila oinarritzen diren erakundeekin.

Horretarako, herritarrak zientziaren ezaguntzan eta zientziarekiko gaitasunera gerturatzeko jarduerak antolatzen ditugu. Emakumeak Zientzian urteroko zikloan ere parte hartzen dugu, elkarrizketa honetan jorratzen ari garen gaiarekin oso lotuta. Zientzia kultura da, eta ezinbestekoa da diziplina zientifiko sozialekin modu integratuan jorratzea, hala nola historiarekin, eta askotariko baliabide kulturalen bidez.

Historia atsegin dut, eta Irunen Euskadiko oinarri historikoko museorik onena izateko luxua dugunez, eta Oiasso Museoak sustatzen dituen dibulgazio-jardueren erabiltzaile izanik, ideia horiek guztiek lekua izan zezaketela iruditu zitzaidan. Proposamena Museoko taldearekin, Aizpea eta Juanjorekin eta Irungo Udaleko Kultura Sailarekin partekatu nuenean, imajina nezakeen harrera maitekor eta sutsuena jasotzeaz gain, piezak egokitu egin ziren eta hirugarren edizioa prestatzen ari gara! Izugarri eskertzen dut jarduera hau nire hirian garatzeko aukera izatea, eta gonbidatzen eta animatzen ditut herrikideak Museoak antolatutako jarduera honetara eta beste batzuetara ere joatera.

